



V. “Bestelako ekonomia bat abian” Jardunaldiak

Madril, 2018ko martxoaren 9a eta 10a

Nortzuk garen

Mugarik gabeko Ekonomilariak erakundea osatzen duten pertsonak ekonomia bidezkoa, elkartasunezkoa, jasangarria eta feminista eraiki nahi dute.

Mugarik gabeko Ekonomilariok uste dugu bestelako eredu ekonomiko baten beharra dagoela. Eredu horrek ekonomia pertsonen zerbitzuan jarriko du, eta ez, oraingo ereduak bezala, milioika pertsona ekonomiaren zerbitzuan; eta bizi garen planetaren muga biofisikoak aitortu eta errespetatuko ditu. Eredu horrek, azken batean, biziaren iraunkortasuna jarriko du erdigunean.

Zer lortu nahi dugun jardunaldien bidez

Sistema ekonomiko kapitalistak hautespen basatirako prozesu handi baten gisara funtzionatzen du. Errefuxiatuak, klima aldaketaren ondorioz erbesteratuak, etxea galdutakoak... Milioika pertsona sistematikoki kanporatuak izaten dira, Saskia Sassen-en hitzetan, egungo ordena ekonomiko eta politikoaren ezaugarri diren dinamika konplexuen eta prozesuen eraginez, eta azken horien parte dira, besteak beste, austeritate politikak, finantzarizazio prozesua edo erauzketa-praktikak (Saskia Sassen, 2015). Pertsonak kanporatu ez ezik, sistemak arpilatu egiten du Natura, bizi garen planeta, eta horrek are kanporatze gehiago eragiten ditu. Sistema patriarkala da, gainera, bera eraikitzeko oinarritzat hartu dira lanaren sexu banaketa, gizonen nagusitasuna eta emakumeen menpekotasuna. Gizakiok elkarren menpekotasuna eta ekomenpekotasuna ditugula ahazten du sistema horrek, *banakotasunaren fantasian* oinarrituta: ulertu omen daiteke gizabanakoa komunitatetik kanpo, eta existitu omen daiteke arrazoia emoziotik kanpo (Almudena Hernando, 2012).

Urtero bezala, jardunaldi hauek antolatu ditugu eraiki nahi dugun eredu ekonomikoari buruz taldean gogoeta egiteko. Aurreko edizioetan finantzak, merkataritza, fiskalitatea edo ekonomiaren irakaskuntza aldatu beharraz hitz egin dugu; ekonomia egiteko ordezko bideak elkarrekin irekitzearen garrantziaz. Politika ekonomikoak aldatzeko premiaz ere bai, biziaren iraunkortasuna erdigunean jarriko duten politika ekonomikoak nahi (eta behar) ditugulako.

Horretarako, gaur egungo ordena ekonomiko eta sozialari eusten dioten kanporatze prozesu eta dinamika horiek guztiak ulertu beharra dago, beroriek determinatzen eta taxutzen baitute, funtsean, ez bakarrik zer politika egin daitezkeen, baita zer pertsona eta gizarte mota izan gaitzkeen ere.

Elkartzeko, hitz egiteko eta eztabaidatzeko gunea izatea nahi genuke jardunaldi hauek, ikuspegi kritiko batetik ekonomia gizartearen zerbitzuan jartzearen alde apustu egiten duten pertsona guztientzat. Inor atzean utzi gabe.

Norentzat diren

Aipatu ditugun gaiak ikertu eta eztabaidatu nahi dituzten pertsona guztientzat dira jardunaldiak, eta baita egungo ereduaren ordezkioak eraikitzen hainbat arlotan lanean diharduten pertsonentzat ere. Guztira 150 bat pertsonak parte hartuko dute, eta 60 leku gorde dira unibertsitate ikasleentzat.

Egitaraua

Ostirala, 2018ko martxoaren 9a

Inaugurazio saioa. 18:00 - 19:30

Kanporatzeak ekonomia globalean

Saskia Sassen, Columbiako Unibertsitatea.

Eztabaida

Larunbata, 2018ko martxoaren 10a

10:00 – 11.30

Banaketasunaren fantasia. Almudena Hernando Gonzalo. Madriliko Unibertsitate Konplutentseko Historiaurre Departamentua eta Ikerketa Feministen Institutua

Eztabaida

11:45 -14:00

Neoliberalismoari eta ekofeminismoari buruzko elkarrizketa. Santiago Alba Ricoren (filosofoa eta idazlea) eta Yayo Herrero Lópezen (Ecologistas en Acción) arteko elkarrizketa.

Eztabaida

Bazkaria

<p>16:00 -18:00</p>	<p>1. tailerra. Merkataritza politikak. Gonzalo Fernández Ortiz De Zárate. OMAL.</p> <p>2. tailerra. Zerga politikak. Panama Papers delakoak. Mar Cabra Valero. ICIJeko (International Consortium of Investigative Journalists) Datuen eta Ikerketaren Unitatea.</p> <p>3. tailerra. Elikadura subiranotasunerako politikak. Silvia Piris Lekuona, Miren Saiz Alzugaray, Mikel Kormenzana Okeranza. Bizilur.</p>
<p>18:00 -18:30</p>	<p>El pie varo. Antzerkia, ekonomia aldatzeko (eta jardunaldiak agur esateko)</p>